



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Euskadiko Futbol Federakundeko eta hiru lurralde federazioetako presidentetek bilera bat egin dute gaur goizean, pandemiaren kopuruen bilakaera aztertzeko eta 2020-2021 denboraldiarekin lotutako jarduerak koordinatzeko.

100.000 biztanleko 500 kutsaduratik gorako herrien zerrenda asko handitu da, eta horietan ezin da kirol-jarduerarik egin ezta entrenamenduetan ere (talde profesionalak edo erdi-profesionalak izan ezik). Hori dela eta, beharrezkoa da bihar, ostirala, Eusko Jaurlaritzak ezar ditzakeen neurri berriak ezagutzea, lehiaketen etorkizunari buruzko erabakia hartu aurretik.

Prebentzio neurri gisa, federazioek hurrengo asteetako partidak atzeratuko dituzte, lehiaketa profesionalak edo erdi-profesionalak izan ezik.

LABiren erabakiak ezagutu ondoren, lau presidentek astelehenean bilduko dira Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendariarekin lehiaketei berriro ekiteko aukera aztertzeko.

Euskadiko Futbol Federakundeak jakinarazi duenez, Euskadiko Kadete Liga eta Gazteen Euskal Liga otsailaren 13-14a baino lehen ez dira hasiko, betiere baldintzak egokiak badira.

Gainerako lehiaketei dagokienez (erdi-profesionalak eta federatuak), kontuan hartuko dira lehiaketa horien garapenari zuzenean eragiten dioten gaietan eskumena duten agintarien jarraibideak eta lau futbol-federazioen artean hartzen diren erabakiak.



Bilbo, 2021eko urtarrilaren 21<sup>a</sup>

**Euskadiko Futbol Federakundea-Federación Vasca de Fútbol**